

PRAKA GORRIAK

Zubek gomutetan eztozuben bariku arratsalde baten, Mikel-Anton, Mañariko «Gereta» deritxon basetxeko etxagun zarra, aizkora zorrotz bat eskuan ebala, basorantza juateko asmoan jarri zan.

Arratsalde aretako eguraldia otza ta illuna zan; aitz-mendiak lañoz ondo estalduta zirala, euria zaparrada andiz jausten zon. Olan bere, gure gizonak atzerarik ez eban egiten, bein bidean jarri ezker aurrera egin bear zala-ta. Euria goyan-beyan zala bideak igaroten ikusita, bere emazteak esan eutson:

—Gizona..! Eguraldi onegaz nora zoaz?

—Untzillaitz aldera, egurretan... —erantzun eutson itz gitxitan.

—Gaurko eguraldiagaz egurretan! —esan eutson andreak ikeratuta. —Etzaitz jua gaur... orretarako eguraldi txarra be badago ta. Barikua danez barriz, ekatxagaz batean «bestaldeko mutikoak» or-orrenbaten urduri ibilliko dira ta...

Senarrak baña, emaztearen esanari «entzun da gor» eginda, bidean barriro be aurrera egin eban, atsuen esanak zietz egitea gauza zalla zala ta.

San Martin'go artzulora eldu zaneko baña, trumoi-ots ikeragarriagaz batera ekaitz bildurgarria sortu zan; ango oñaztu ta ango trumoiak eta ango euria ta txingor jausteak andiak ziran. Orrenbeste-gaz «Geretako» etxaguna ikeratu zan; eta ekaitz andiaren erpeetatik iges egiteko, bertan egoan labarpe batera jua zan. Aitz-mendi guztiak ganera joakozala begitandu jakon.

Onetan, San Martin ermitako artzulotik urten ziran zarata batzuk, Mikel Anton bertara begira imiñi eben. Alako zarata ta zarraparrik, bere belarriak egundo ezeben entzun.

—Onako zaratarik eta garrazirik, egundo etxoat entzun, iñoan. Zer ete jagok bertan? Egingo neukek... «bestaldeko mutikoak» dagozala bertan... Onako demoniñoik...!

Gure gizona olako autuetan ebillan artean, oñaztu andi baten argitan, artzulotik, zortzi mutil, zortzirok dantzari antzian arrapalada baten urten ziran. Mutillak, euren gorputzak arkondara baltzakaz ta praka gorriakaz estalduten ebezan. Eta eurakaz batean, beste praka-gorri bat turuta-soñu bat eskuan ebala arinka baten agertu zan.

Orduan zortzi «praka-gorriak» turutapotsean, iñun ziran dantzak egiten asi ziran. Aren jira-birak eta aren saltuak ikusita, «Geretako» gizona ezetarako be adorerik barik geratu zan. Oi, nik andrearen esana egin baneu..! tamalez esaten eban. Eta ikuskizun bildurgarria begi-aurretik kenduteko, eskumako eskuagaz «Aitearen» egin eban.

Beste barik, «Prakagorriak» geratu egin ziran. Eta, euretariko batek, asarre bitsetan, Mikel Antoneri «Aitearen» egin eban besoa zugatz batera lotu eutsen.

Ori eginda, barrien barri dantzak egiten asi ziran; berrero be gure gizonak, beste eskuagaz «Aitearen» egin eban. Eta orduan be «praka-gorriak» beste eskua lotu eutsen. Irugarrenez dantzan asi ziran barriz, ujujuka ta didarka pozarren ibilli ziran, laborpeko gizonak «Aitearen» berrero ezingo ebala egin eta.

«Geretako» gizonak baña, «Aitearen» ezin ebala egin ikusi ebanean, «Jesus» izen deun deuna gogo beroz didar egin eban. Eta orduban jaso zan andiena. «Praka-gorriak», Jesus izena entzuteagaz batean, jolas eta dantza guztiak alde batera itxita, arrapalada baten artzulatorantza abiau ziran. Bidean, laugiñean joyazala esaten eben:

—Orrexek Geretako gizon zirtzillak jaukek errue... Orrek apurtu jozak gure dantzak eta jolasak... eta orrek kendu dauskuk umoria...

Ta, ori esanda beste barik, praka-gorri guztiak asarre-bitsetan, ke moltso sendo baltzak atzean izten ebezala, amorruez beterik artzulatoratu ziran.

Mikel Anton zintzoa ostera, praka-gorriak amorruez ikusi ebazanean, barre-santzoka asita, etxerantzakoan jarri san. Eta gabian etxera eldu zanian, ikusirikuaaren barri andriari «zietz da mietz» emonda gero, arretaz esaten ekin eban:

—Nozipein izanda be, andren esana egitekoa da... Sorgin eta lamiña kontuetan atsuak dozak nagusi bai...

Praka-gorri arek txerrenak edo diabruak izan ei ziran.

Mañariko



Eiztaria eperretan

Eiztari bat luzaroan eperretan zebillan. Baña asko ibilli ta nekatu-arren, etzuan iñun eperrik ikusten. Alperrik ainbeste ibiltzen aspertu zanean, Garbitokiko animai eskeñi zien andik aurrera arrapatzen zuanaren erdia. Andik geroxeago, bi eper azaltzen zaizkio aurrez-aurre. Bakoitzari tiro bana jaurtitzen dizkie. Bata ilda utzi du, baña bestea bizirik aurrera dioa. Orduan eiztariak onela dio: «Ara, zein azkar dijoan Garbitokiko animai eman diedan eperra».